Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Micaela Sasiain Ormazabal

Lasarte-Oria, Gipuzkoa (1929)



Aurkibidea

Biografia



Urnietako (gaur egun Lasarte-Oria) Oztaran auzoko Elkezabalaundi baserrian jaio zen, 'Lauterdi' bezala ezaguna zena. Hamar senidetan gazteena da Micaela. Haren iloba Bixente Sasiain ere elkarrizketatuta dago. Hiru urte zituela aita hil zitzaion, eta bederatzi urterekin ama, tifusaz gaixotuta. Ahizpa zaharrena arduratu zen Micaela zaintzeaz. Eskola amaitutakoan josten ikastera joan zen. Hogeita sei urterekin ezkondu, eta alaba bat izan zuen. Senarrak Rezolan egiten zuen lan. Anaia Michelingo lehenengo langileetako bat izan zen.

Zintak

LAS-015

- **Proiektua**: Lasarte-Oriako Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lizeaga, Irati
- **Data**: 2019-07-11
- **Iraupena**: 121 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Lizeaga, Irati

Pasarteak

1. Aitonak mendia saldu zuenekoa

- **Erref**: LAS-015/005
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:01:42. **Bukatu**: 00:03:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Bai ama eta bai aita Urnietakoak ziren. Aitona Amasakoa zuen. Haren baserri aldeko mendia saldu zuen aitonak, eta izugarrizko dirutza jaso zuen trukean. Zoritxarrez, aitonaren dirua haren semeen artean banatu zen, eta Micaelaren amona, emakumea zenez, dirurik gabe geditu zen.

2. 9 urterekin umezurtz gelditu zen

- **Erref**: LAS-015/007
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:05:36. **Bukatu**: 00:06:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:
Hamar senidetan gazteena da Micaela, hogei urteko aldea du zaharrenarekin. Gazte hil ziren bere anai-arreba batzuk. Micaelak hiru urte zituela hil zen haren aita. Ama 53 urterekin hil zen. Ondorioz, 9 urte zituela, umezurtz gelditu zen Micaela.

3. Ama Tifusaz gaixotu zen

- **Erref**: LAS-015/009
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:07:21. **Bukatu**: 00:08:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:
Aita adinagatik hil zen, ama ordea, Tifusak jota. Micaelaren ahizpa Tifusaz gaixotu eta ama hura zaintzera joan zenean, kutsatu, eta hil egin zen Micaelak 9 urte zituela.

4. Ama egunero Donostiara joaten zen

- **Erref**: LAS-015/011
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:09:05. **Bukatu**: 00:10:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:
Baserritik bide luzea zegoen Urnietara, hiru ordu laurden gutxi gora behera. Lasarte udalerria ez zenez, lurzoru hori Urnietari zegokion, gaur egun, ordea, Lasarte-Oriari. Ama egunero joaten zen Donostiara saltzera. Hori zela eta, ondo bizi zirelako fama zuten auzoan, goxokiak eta arropa berriak izaten zituztelako.

5. Ahizpa Burutzako tiroketak harrapatu zuen

- **Erref**: LAS-015/013
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:10:50. **Bukatu**: 00:13:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Baratzetik bizi zen familia. Baratze haundiak zituzten, eta tratua saltzera joaten zen Micaelaren ahizpa Donostiara. Gogoan du ahizpak kartzelako presoak elizara joaten ikusten zituela, eta asterik aste presoak desagertu egiten ziren. Beste batean, Buruntza aldean tiroketa bat hasi, eta osabaren etxean gelditu behar izan zuen ahizpak.

6. Ahizpak soldaduari izen faltsua eman

- **Erref**: LAS-015/015
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 00:13:30. **Bukatu**: 00:14:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Errusiara ihes egin behar zutelako zurrumurrua zabaldu zen. Ganadua lapurtu ere egin zieten. Soldadu batek Micaelaren ahizpari izena galdetu, hark gezurra esan, eta "Isabel Eztabilondo" zelakoan eskutitza idatzi zion.

7. Koltxoiak leihoetan, tiroez babesteko

- **Erref**: LAS-015/016
- **Iraupena**: 0:00:49. **Hasi**: 00:14:24. **Bukatu**: 00:15:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Micaela txikia zela, tiroketak ohikoak izaten ziren. Googoan du gurasoek leihoetan koltxoiak jartzen zituztela, balak gelditu eta inor zauritu ez zedin. Aita Micaelak 3 urte zituela hil zen.

8. Donostiarrak baserrira joaten ziren euskara ikastera

- **Erref**: LAS-015/018
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:15:20. **Bukatu**: 00:16:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:
Kategoria handiko hiria zen Donostia. Baserrira Donostiako jendea joaten zen euskaraz ikastera, eta Micaela eta anai-arrebei erdaraz ikasteko baliagarria zitzaien.

9. Donostian zakarra idiekin biltzen zuten

- **Erref**: LAS-015/020
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:17:43. **Bukatu**: 00:18:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:
Ama, aita eta ahizpak maiz joaten ziren Donostiara tratua eta esnea saltzera. Etxez etxe ibiltzen ziren. Gogoan du Donostian zaborra idiekin jasotzen zutela.

10. Cara al Sol eta Sacamantecas

- **Erref**: LAS-015/022
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:21:11. **Bukatu**: 00:23:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:
Urnietako eskolara joaten zen eskolara, eta 'Cara al Sol' abesten zuten. Maistrak Francisca zuen izena. Hogei bat ume egoten ziren eskolan, baina neskak eta mutilak bananduta. Egun batean, eskolako kide batek Sacamantecas ikusi zuela kontatu zuen, eta bakoitzari etxera laguntzen zion ordutik.

11. Eskolan dena erdaraz

- **Erref**: LAS-015/023
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:23:56. **Bukatu**: 00:25:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Maria Dolores eta Francisca izan zituen maistratzat Usurbilgo eskolan. Dena

erdaraz egiten zutenez zenbait ikaslek gaizki pasa zuten hizkuntza aldaketarekin. Micaelari ez zitzaion hain zaila egin, baserrian erdaldunak egoten baitziren euskara ikasteko, eta erdara txikitatik entzun baitzuen horri esker.

12. Francoren aurkakoa izateagatik hileta ukatu

- **Erref**: LAS-015/025
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:26:26. **Bukatu**: 00:28:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:
Inguruan bazen harakin familia bat. Gerra garaian Francoren aldekoek haien aita hil, eta errepublikarra zenez ez zioten hiletarik egin. Urteetara haien ama hil zenean, senarrari moduan, hileta ukatu zioten.

13. Lasarteko hipodromoan jende dotorea

- **Erref**: LAS-015/028
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:30:33. **Bukatu**: 00:32:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:
Anai-arreba guztiak Urnietako eskola berera joan ziren. Gero anaia Michelingo sorreran murgildu zen. Micaela Garibai kalera joaten zen josten ikastera. Igandetan jostuna zaldi-lasterketak ikustera joaten zen Lasartera. Jende dotorea egoten zen bertan.

14. Auto-lasterketak eta Crossa

- **Erref**: LAS-015/029
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:32:32. **Bukatu**: 00:34:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:
Hipodromoaz gain, auto-lasterketak ere egoten ziren Lasarten. Izugarrizko ilara omen zegoen beti. Orain baino jende gehiago biltzen zen Crossa ikusteko.

15. Oztaran auzoa eta Lasarte

- **Erref**: LAS-015/031
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:34:56. **Bukatu**: 00:36:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:
Oriarekin mugan dago Oztaran auzoa. Lasartera jaisten ziren baserritik, ez zuten Urnietara joateko ohiturarik.

16. Kaniketan eta soka-saltoan

- **Erref**: LAS-015/032
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 00:36:55. **Bukatu**: 00:37:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Umetakko jolasak: kanikak, soka saltoa, tabak...

17. Margarita loreak hartu nahi ez, Margarita zirelako

- **Erref**: LAS-015/034
- **Iraupena**: 0:00:48. **Hasi**: 00:38:35. **Bukatu**: 00:39:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa

Laburpena:
Micaelak gogoan du Margaritek (karlistek) zuten garrantzia gizartean. Hainbestekoa, non, ez zuten Margarita lorerik hartu nahi izaten, Margarita izanagatik.

18. Hilotza etxean edukitzen zen

- **Erref**: LAS-015/036
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 00:40:00. **Bukatu**: 00:41:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:
Aita hilkutxan nola eraman zuten gogoan du Micaelak. Lehengusuak aita berriro bueltatuko ez zela esan eta etxean ama negarrez topatu zuen. Hilotza etxean utzi eta bisitariei jaten eta edaten ematen zitzaien.

19. "Gazte denbora guztia beltzez bizi izan naiz"

- **Erref**: LAS-015/038
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:42:37. **Bukatu**: 00:43:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:
Dolua adierazteko beltzez janzten ziren, normalean. Micaelak aita eta ama galdu zituenez, baita senide mordoa, beltzez pasa zuen gazte denbora.

20. Urnietan dantza egiterik ez, Lasarten bai

- **Erref**: LAS-015/040
- **Iraupena**: 0:00:41. **Hasi**: 00:43:40. **Bukatu**: 00:44:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Dantza egitea debekaturik zegoen Urnietan, gainera, arropa luzez jantzi behar zuten emakumeek. Lasarten, ordea, dantzan aritzea onartua zegoen, eta bertara joaten ziren Micaela eta lagunak.

21. Garai bateko Lasarte-Oria

- **Erref**: LAS-015/041
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:44:21. **Bukatu**: 00:45:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa

Laburpena:
Denak ezagunak ziren Lasarten, oso gertuko tratua zen toki guztietan. Oso txikia zen herria, baina herritarren artean banaketa modu bat zegoen baserritarrene ta kaletarren artean.

22. Pobrea izateagatik burla

- **Erref**: LAS-015/043
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:46:16. **Bukatu**: 00:47:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:
Casa Devantera joaten ziren jostera. Bertako jabeek burla egiten zioten Micaelari, pobrea zelako.

23. Euskalduna al zen Lasarte?

- **Erref**: LAS-015/045
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:48:25. **Bukatu**: 00:49:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Micaelaren auzoa (baserritar auzoa) euskalduna zen, baina hortik Lasarterantz jaitsi eta giroa erdalduntzen hasten zen. Guraso euskaldun elebakarrak izan, eta seme-alabak erdaldun elebakarrak izatea maiz gertatu den kasua da herrian.

24. Erdaraz ia jakin gabe, jo eta ke erdaraz

- **Erref**: LAS-015/047
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:50:09. **Bukatu**: 00:51:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Donostiako Urbieta kalean Francesa dendara joaten ziren, eta han erdaraz egiten zuten. Jabeak bertan euskaraz egiteko esaten zien, erdaraz gaizki egiten zutelako. Urnieta euskaldunagoa zen Lasarte baino.

25. 26 urterekin lehenengo labadora

- **Erref**: LAS-015/049
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 00:52:37. **Bukatu**: 00:53:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:
Betidanik ezagutu du ura eta argia etxean, baina labadorarik eta dutxarik ez. 26 urterekin ezkondu eta senarrak labadora egin zion, garbitu bai baino uretan eragiten ez zuena, hori eskuz egin behar izaten zuten. Labadora izan aurretik, errekan garbitzen zuten arropa.

26. Ganadua, barazkiak eta sagardoa oinarri

- **Erref**: LAS-015/051
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:54:06. **Bukatu**: 00:55:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Ganadua esnetarako zuten, baita saltzeko ere. Barazki asko ekoizten zuten.Sagardoa egiten zuten etxeko sagarrarekin, sagardotegia baitzuten.

27. Gerra hasi zen eguna

- **Erref**: LAS-015/053
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:56:01. **Bukatu**: 00:57:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Gogoan du Micaelak gerra hasi zen egunean bertan gurasoak eta anai-arrebak arropa sagardo upeletan gordetzen hasi zirela, Errusiara eramango zituztelako zurrumurrua zabaldu baitzen. Jendeak ihes egin zuen, eta janari dendetako poduktuak hartzen zituzten askok, hutsik gelditu baitziren dendak.

28. Frankistak begiz jota zeuden herrian

- **Erref**: LAS-015/057
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:59:07. **Bukatu**: 01:00:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- Familia eta harremanak » Herriko giroa

Laburpena:
Denek zekiten zein ziren Francoren aldekoak, eta ekontuz ibiltzen ziren haiei ezer ez esateko, txibatoak zirelakoan. Gauza jakina izan ohi zen familia bakoitzaren ideologia politikoa.

29. Batzokiko bandera egin zuen

- **Erref**: LAS-015/059
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 01:00:28. **Bukatu**: 01:02:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak

Laburpena:
Lagun batek eta Micaelak egin zuten batzokiko bandera, josun onak baitziren.

30. Euskaraz hitz egitea debekatuta

- **Erref**: LAS-015/061
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 01:03:42. **Bukatu**: 01:05:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Euskaraz hitz egitea debekaturik zegoen kalean, eta mota askotako zigorrak jasaten zituzten.

31. Urnietatik elizara Lasartera

- **Erref**: LAS-015/063
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 01:06:07. **Bukatu**: 01:07:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:
Kongregaziora Urnietara joaten ziren, elizara, ordea, Lasartera. Festetara ere Lasarterantz jotzen zuten. Oriako eliza. Oriako okinaren hileta (Kerejeta).

32. Tolosako euskara famatuena

- **Erref**: LAS-015/066
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 01:08:28. **Bukatu**: 01:09:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Lasarte-Oriako eta inguruko herrietako euskara oso antzekoa zen. Elgoibarkoa oso berezia iruitzen zaio Micaelari. Orduan Tolosaldeko euskarak zuen famarik onena. Etxean beti hika egiten zuten.

33. Baserriari esker, goserik ez

- **Erref**: LAS-015/068
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 01:12:50. **Bukatu**: 01:14:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Gizonek etxetik kanpo lan egiten zuten. Emakumeek laboreak egiten jakitearen garrantzia. Gose handia zegoen orduan, etxetik aberatsenetan edo onenetan ere argaldu ziren. Familiako baserritarrei esker ez zuen goserik pasa.

34. Gosea: ez ogirik, ez oliorik

- **Erref**: LAS-015/069
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 01:14:17. **Bukatu**: 01:16:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Errazionamendua zela eta, janari bila Oriara eta Lasartera joan izan ohi zen Micaela. Egunero ogi bat ematen zion militar batek.

35. Hiru anaiak gerran ibilitakoak

- **Erref**: LAS-015/071
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 01:18:16. **Bukatu**: 01:19:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:
Anaia zaharrena Michelingo langilea zelako gerrara joateaz salbu gelditu zen. Beste bi anaiak, ordea, 18 urte bete eta gerrara joan ziren. Haietako bat oso gaixorik itzuli zen gerratik

36. Michelin, Brunet eta Rezola

- **Erref**: LAS-015/075
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 01:22:03. **Bukatu**: 01:23:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:
Tela-fabrika zen Brunet, eta hiru ahizpa han aritu ziren lanean. Michelin, Brunet eta Rezola ziren Lasarte inguruko fabrikarik indartsuenak.

37. Tabernetan emakumerik ez

- **Erref**: LAS-015/077
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 01:25:25. **Bukatu**: 01:26:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Gizonak tabernan egotea ohikoa zen, baina emakumerik ez zen tabernetan sartzen, gaizki ikusirik zegoen.

38. Emakumea eta elizaren indarra

- **Erref**: LAS-015/079
- **Iraupena**: 0:02:32. **Hasi**: 01:26:51. **Bukatu**: 01:29:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Elizara Lasartera jaisten ziren. Kongregazioaren eta dotrinaren garrantzia. Micaelaren hiru anai gerrara joan ziren, eta bueltakoan elizara joateari utzi zioten. Konfesatzera joan beharra. Nobioarekin utzi gero, fama txarra.

39. Erraza zen ligatzea

- **Erref**: LAS-015/081
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 01:30:13. **Bukatu**: 01:31:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Mutilak neskak baietz esateko zain egoten ziren. Neska mutilengana joatea gaizki ikusirik zegoen.

40. Senarra dantzan ezagutu zuen

- **Erref**: LAS-015/083
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 01:32:20. **Bukatu**: 01:33:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Dantzan ezagutu zuen Micaelak senarra. Etxera lagundu zion hark baina Micaelak bide erdian zeudela bueltan bidali zuen. Azkenean, baiezkoa eman eta zinemara joan ziren.

41. Ezkondutakoan, lana utzi behar

- **Erref**: LAS-015/085
- **Iraupena**: 0:00:52. **Hasi**: 01:37:10. **Bukatu**: 01:38:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Emakumeek lana utzi behar izaten zuten behin ezkonduta. Lanean hasi baino lehen firmaarazten zieten baldintza zen hau. Gizonen soldata altuagoa izan ohi zen.

42. Oriak komunista fama

- **Erref**: LAS-015/087
- **Iraupena**: 0:00:42. **Hasi**: 01:38:10. **Bukatu**: 01:38:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Politika » Jarrera politikoak » Komunistak

Laburpena:
Oriakoen artean oso harreman estua zuten. Orian langile mugimendu handia zegoen, eta komunista fama zuten. Lasarte eta Oriaren arteko ika-mikak.

43. Lasarte-Oriaren sorrera

- **Erref**: LAS-015/089
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 01:39:51. **Bukatu**: 01:41:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa

Laburpena:
Lasarte bost udalerritan banatuta egotea ez zen erosoa herritarrentzat. Micaelaren Baserria Urnietako zatiari zegokion.

44. Galtzak lehen aldiz

- **Erref**: LAS-015/091
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 01:43:58. **Bukatu**: 01:45:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Senarrak galtzak janzteko animatzen zuen Micaelak, baina berandu xamar hasi zen Micaela. Emakume askok galtzak erabiltzea kritikatu zuten, baina gero erabiltzen hasi.

45. Ikastola sortzeko diru-bilketa

- **Erref**: LAS-015/093
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 01:45:15. **Bukatu**: 01:46:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Micaelak ikastola sortzeko diru-bilketa egin zuen baserriz baserri.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-01

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com